



iragan urruna

A U R K I B I D E A

1 Kontzeptuak

2 Urratsak

3 Aktibitateak

4 Ebaluaketa

5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Iragan urruna : haurrak, denborak duen urruntasunarengatik, sendi edo bizi ezin duen denboraldia da.

Modulo honek junta egiten du hirugarren zikloarekin. Alabaina, mendea lantzen den pundutik, data aipatuz, 1900 – 2000 heineko zifrak hunkitzen ditugu ; horiek hirugarren zikloari doazkio.

Gainera, gaietan barna sartzeko, galderek haurrari hirugarren ziklora heltzean duen heldutasun maila eta munduaren ezagutza eskatzen diote. Ondorioz, egoki iduritzen zaigu gai hau hirugarren zikloan ere baliatzea.

2 URRATSAK

■ Ikasleak dakitenetik abiaraz. Horrez gain, etxean edo familiako zaharren lekukotasunaren biltzeko galda.

Adibidez : - *Amatxi, ttipia zinelarik, nolakoa zen zure eskola ?*

Haurrei galda iezaiezue etxetik tresnak eta argazkiak eskolara ekar ditzaten.

■ Jendearen bizitzaren iraupena eta belaunaldien arteko lotura adieraz (ikus zuhaitz genealogikoa iragan hurbilari doakion moduloan).

Paisaia edo argazki baten lantzeko irizpideak.

Paisaia edo argazkia, testuak bezala, deskodatzeko edo irakurtzeko ahal dira, elementu bakoitza aztertuz. Hori, bost arau nagusiri jarraikiz :

Behatu, argazkiaren elementu edo gauzen identifikatzeko.

Izendatu, hiztegi bereziaren ikasteko.

Ulertu eta esplikat, norberak bere iritzia eman dezan.

Kokatu, herrian, karriketan eta etxeetan (karta edo planoaren bidez).

Berrirudikatu ikusi duguna, plano edo eskema baten bidez berriz erakutsiz.

Bestalde, argazki bakoitza alor berezi batean sailkatu dugun arren, argazki horien edukiak beste alorretan ere lant daitezke, adibidez : jantzien gaia lant daiteke garraio, lanbide edo beste alorretan.

3 AKTIBITATEAK

DOKUMENTUETATIK ABIATUZ

Mende hastapenean edo duela zenbait belaunaldi jendea nola bizi zen aztertzeko elementuak eman : argazki, lekukotasun eta beste (entzun, adibidez, Irulegiko irratiko *Gure arbasoak* emankizuna).

ERKAKETA


Jendearen eta jendartearen aldaketen aztertzeko, alor bakoitzean landu elementuak (jantzi, lanbide...) konpara.

Hona hemen modulo honetan aztertu gaiak: etxea, eskola, merkatua, saltegiak, jantziak, garraioa, bestak eta ohi-durak, lanbideak, laborantza, artzantza, arrantza, osagarria, janaria, jokoak, paisaia.

● ARGAZKIEN USTIATZEKO MOLDEAK

Aldi guziz bi joko proposa daitezke.

▼ Puzzleak oraingo eta lehengo argazkien konparatzeko



- bi argazki hauta ; A4 formatoan fotokopia eta zatika (moztu argazki zatiak aski handiak izan behar dira, ikasleek ezagutzeko eta baliatzeko gisan) ;
- bi argazkiak, bata bestearen gainean ezarririk, biak betan motz, neurri eta itxura bereko pusken erdiesteko ;
- puska guztiak nahasteka ;
- ikasleek bi argazkiak ber osatu behar dituzte.

▼ Asmakizun jokoa (jokoa, "Zein da zer ?" izenda genezake) :

- ikasgelan hiru talde osatuko ditugu ;
- lehen taldeak, zein argazki lantzen ari den erran gabe, argazki zaharra ahoz deskribatuko du ;
- bigarren taldeak gauza bera egingen du argazki berriarekin ;
- talde bakoitzean, haur bakoitzak elementu bat deskribatuko du ;
- hirugarren taldekoek, elgarrekin adosturik, argazki zaharra zein den eta zein den berria asmatu behar dute.

■ Haurrei, argazkien deskribatzeko irizpide batzuk emaezue.

<p>A taldea hiruzpalau haur, lehengo argazkia deskribatzen ari.</p>	<p>B taldea hiruzpalau haur, oraingo argazkia deskribatzen ari.</p>	<p>Beste haurrek zaharrena (edo berriena) zein den asmatu behar dute.</p>
--	--	--

■ Gramatikaren aldetik, horrela lant dezakezue :

Ergatiboa : Gure argazkiakerakusten du / ditu.

Inesiboa : Gure argazkianikusten da / dira.

PROIEKTUAK

- Modulo honen bukaeran erakusketa bat munta dezakezue : haurrek, etxean edo familian eskuragarri dituzten tresna, testu eta argazkiak (karta postalak ere) sailkatuz. Irizpide ezberdinak erabil daitezke : antzinakotasuna, alorra, tekniken aitzinamendua urraska...
- Argazkietan ikusgarriak diren iharduerak (lanbideen alorrean bereziki) mima.

Etxea (sukaldea) ikaslearen 1. fitxa

Argazkiak :

Baionako euskal erakustokian antolatu molde zaharreko sukaldea.
Egungo sukalde moderno bat.

Ustiamoldea :

- Argazkiak, behatu gabe motz eta puzzle gisa eman. Ikasleek ber osatuko dituzte, puskak elgarren artean juntatuz (ikus puzzle jokia aitzineko orrian).
- Galde zenbait ikasleei :
 - Zerk erakusten du sukaldea dela ? (gauzak izenda)
 - Zertako balio dute tokiek eta tresnek ?
 - Egizu marrazki bat sukaldeko gauza nagusien irudikatzeko.
 - Sukaldeak konpara itzazu : zein dira batean eta bestean ikusten ez diren gauzak ?
 - Zerekin berotzen zuten janaria ? Zer erretzen zuten supazterrean ?
 - Zein dira sukalde mota bakoitzean erabiltzen diren energiak (indarrak) ?

Gutieneko hiztegia eman ikasleei : supazterra, pegartegia, haustegia, kaxategia, kutxa, zuzulua, sehaska, pegarra, ferreta, bertza (ontzia sutan), laratza, gasnategia...

Eskola ikaslearen 1. fitxa

Argazkiak :

Uztaritzeko eskola bateko ikasgela, 1958an.
Biarritzeko eskola bateko ikasgela egun.

Ustiamoldea :

- Argazkiak, behatu gabe motz eta puzzle gisa eman. Ikasleek ber osatuko dituzte, puskak elgarren artean juntatuz (ikus puzzle jokia aitzineko orrian).
- Galde zenbait ikasleei :
 - Zer da gela hau ?
 - Zeri esker dakigu ikasgela dela ?
 - Izenda itzazu gaur egungo ikasgelan erabiltzen diren tresna berriak.
 - Zertako balio dute ikusten diren altzariak (mubleek) eta gauzek ?
 - Non kokatua da ? Egizu eskolaren planoan eta horretan, zuen ikasgela koka (edo eskola herriko planoan koka).
 - Egizu marrazki bat gelako gauza nagusien irudikatzeko.

Gutieneko hiztegia eman ikasleei : taulierra, arbela...

Merkatua ikaslearen 2. fitxa

Argazkiak :

Donapaleuko merkatua 1903an.

Egungo merkatu estalia. **Oharra** : argazki hori ez da merkatu egunean hartua.

Hazparneko merkatua karrikan, 1905ean.

Karrika bera egun.

Ustiamoldea :

- Argazkiak, behatu gabe motz eta puzzle gisa eman. Ikasleek ber osatuko dituzte, puskak elgarren artean juntatuz (ikus puzzle jokoa aitzineko orrietan).
- Ikasleek, taldeka, merkatuen deskribapena egingen dute (ahoz).
 - Argazkiak erkatuko (konparatuko) dituzte : zer da berdina ? Zer ezberdina ?
 - Asmatuko dute zein argazkitan ikusten den Donapaleu eta zeinetan Hazparne.
 - Hazparne eta Donapaleu kokatuko dituzte Euskal Herriko mapan.

Saltegiak ikaslearen 3. fitxa

Argazkiak :

Akamarreko saltegia lehen.

Saltegi bera gaur egun.

Kanboko saltegia lehen.

Saltegi bera gaur egun.

Ustiamoldea :

- Ikasleek, taldeka, saltegien deskribapena egingen dute (ahoz).
- Argazkiak erkatuko dituzte, berdintasunak eta ezberdintasunak azalduz.
- Saltegi bakoitzak zer saltzen du ?
- Asmatuko dute zein argazkitan ikusten den Akamarre eta zeinetan Kanbo.
- Akamarre eta Kanbo kokatuko dituzte Euskal Herriko mapan.

Jantziak / Arropak ikaslearen 4. fitxa

Argazkiak :

Ezkontza Duzunaritzen, 1935ean.

Ezkontza bat gaur egun.

Lehen, Biarritzeko hondartzan mainatzen.

Biarritzeko hondartzan mainatzen orain.

Mezatik ateratzen lehen, Donapaleun.

Mezatik ateratzen egun, Hazparnen.

Ustiamoldea :

- Ikasleek argazkietako jantzien deskribapena egingen dute (ahoz, taldeka).
- Argazkiak erkatuko dituzte, berdintasunak eta ezberdintasunak azalduz.
- Asmatuko dute zein argazkitan ikusten den Biarritz eta zeinetan Donapaleu.
- Biarritz eta Donapaleu kokatuko dituzte Euskal Herriko mapan. Zein probintzian daude ?

Ikus, bestalde :- *Karrikak* alorrean, ferreta (suila) buruan urketa doan emaztea.

- *Lanbideak* alorrean, mugaz gaindiko langileak (laborariak).

Alor hau argazki guzietan lant daiteke.

● Garraioa / Karreatzea ikaslearen 5., 5. bis, 5. ter fitxak

Konparaketa gisa edo bilakaera gisa lantzen ahal da.

Konparaketa :

Argazkiak :

Baionako tren geltoki aitzina lehen.

Baionako tren geltoki aitzina orain.

Lurrunezko edo baporezko tren lokomotora Getarin, XX. mendearen hastapenean.

Abiadura handiko trena Baionako geltokian, egun.

Galde zenbait ikasleei :

- Zer erakusten dute argazki hauek ?
- Zer indar mota (energia) baliatzen dute ibiltzeko ?
- Argazkiak binaka har. Zertan dira berdinak eta zertan ezberdinak ?

Bilakaera :

Argazkiak :

Posta eta diligentzia Hazparnen, XX. mendearen hastapenean.

Autobusa Baionan gaur egun.

Autoak Donibane-Garaziko plazan, beihala.

Merkatutik astoz sartzen, Bidaxunen, 1909an.

Galde zenbait ikasleei :

- Sailka itzazu, lerrokatuz, lau argazki horiek.
- Zeren arabera egin duzu sailkapena ? Zer duzu kondutan hartu ?

Argazkiak :

Bi behi pare belarra orgaz karreatzen.

Ahurfitik Baionara harriak gabarraz karreatzen.

Urketaria Donibane-Garaziko gotorlekuko (zitadelako) karrikan, XX. mendearen hastapenean.

Galde zenbait ikasleei :

- Zer karreatzen dute hiru argazki horietan ?
- Nola karreatzen dira gai horiek gaur egun ?

Bestak / Ohidurak  *ikaslearen 6. bis, 6. ter fitxak*

Argazkiak :

Zanpantzar besta Uztaritzen, 1930ean.

Zanpantzar besta Uztaritzen, berriki.

Maskarada Zuberoan lehen.

Maskarada Zuberoan orain.

Maskaradako Zamaltzaina lehen.

Maskaradako Zamaltzaina orain.

Besta Berri, aspaldi.

Besta Berri Iholdin, 90. hamarkadan.

Galde zenbait ikasleei (6. fitxan) :

- Zer erakusten dute argazki horiek ?
- Zein dira argazkien berdintasunak eta ezberdintasunak ? (binaka konpara)
- Noiz¹ dira besta horiek iragaiten ? Non² ?
- Izenda eta deskriba itzazu maskaradaren zenbait pertsonaia³.

Oharra irakaslearentzat :

- 1** Ihauteri garaian, Garizuma baino lehen (otsailean eta martxoan).
- 2** Maskarada Zuberoan, Kabalkada Nafarroa-Beherean eta Kaskarotak Lapurdin.
- 3** Oro har, bi talde daude : gorriak eta beltzak. Beltzak eta gorriak aurkariak dira.

Gorriak (jende zintzoa) : Txererroa, Gatüzaina, Kantiniersa, Zamaltzaina, Entseinaria. Horiek oro aitzindariak dira, dantzari nagusiak. Besteak : Jauna eta Anderea, Laboraria eta Laborarisa, Marexalak eta Kükülleroak. Kerestuak. Beltzak (jende gaixtoa) : Xorrotxak, Buhameak, Kauterak (Kabana, Pitxu), Bedezia...

6. bis fitxan, ikasleei galdatzen zaie argazkien deskribatzeko, erkatzeko eta sailkatzeko.

Argazkiak :

Bertsulariak plazan, beihala.

Fernando AIRE "Xalbador" bertsutan. Gibelean, buru makur eta pentsaketan ari, Mattin Treku "Mattin Ahetzekoa".

Bertsulariak norgehiagoka gaur egun.

Galde zenbait ikasleei :

- Zer erakusten dute argazki horiek ?
- Zein dira argazkien berdintasunak eta ezberdintasunak ?
- Sailka itzazu. Zein irizpide erabili duzu horien sailkatzeko ?
- Bila itzazu entziklopedian eta liburuetan Xalbadorren eta Mattinen sorlekuak eta mapan koka itzazu.

Iradokizuna : Xehetasun gehiago bila ezazue bertsolarien bizitzaz. Liburuez bestalde, ikus Elhuyarrek argitaratu *Bertsoaren mundua* CD-Romean.

Lanbideak ikaslearen 7., 7. bis, 7. ter fitxak

Argazkiak :

Postaria Lekornen, XX. mendearen hastapenean.

Postaria gaur egun, Amikuzeko bideetan gaindi.

Xistera egileak. Lakarra familia, Azkainen.

Ziburuko xistera egilea gaur egun.

Zapetagintza, gizonak lanean ari. Hazparnen, 1950ean

Zapetagintza, emazteak lanean ari. Hazparnen, 1950ean.

Harrigintza Bidaxuneko harrobian.

Harrobia orain.

Baztango aizkolariak sasoineko langile Garazin, XX. mendearen hastapenean.

Oihangintza orain.

Mehatzariak, Arrosan, XX. mendearen hastapenean.

Hartz erakusleak, beihala.

Ferratzailea lehen.

Hendaiako latsaharrian, xuriketa egiten ari.

Zorroztailea.

Kontrabandista.

Galde zenbait ikasleei :

- Hiru orrietan dauden argazkiak binaka eman, ahalaz.
- Zer duzu kondutuan hartu pareen egiteko ?
- Latsaharriko ikuztaileak, ferratzaileak, zorroztaileak, hartz erakusleak, sasoineko laborariak eta kontrabandistak... Badea, gaur egungo ofizioetan, haien parekorik ? Zein ofiziorekin konpara daiteke bakoitza ?

Oharra : kondutuan har kontrabandoari "gaueko lana" deitzen ziotela, eta legez kanpoko lana bazen ere, mugaren inguruan "lan normala" kontsideratua zela.

Iradokizuna : gogoeta egizue gizonen eta emazteen arteko lan banaketaz eta gai honen bilakaeraz.

Laborantza ikaslearen 8. fitxa

Argazkiak :

Ogi (gari) moztea dailuz.

Angelus-aren otoitza egiten ari 1910ean.

Ogi biltzea eta karreatzea, XX. mendearen hastapenean.

Ogi joitea Donibane-Lohizunen, XX. mendearen hastapenean.

Belarraren eta uzten karreatzeko lera Azkainen, XX. mendearen hastapenean.

Belarraren eta uzten karreatzeko oraingo fresnak.

Galde zenbait ikasleei :

- Sailka itzazu lehen lau argazkiak egintzen ordenan.
- Zer makina erabiltzen da gaur egun lan guzi horien egiteko ?

Gutieneko hiztegia eman ikasleei : eskalapoinak, dailua (sega), orga, bihurtzeko sardea, ogi joiteko mekanika, aitzurra, lera...

Artzaintza ikaslearen 9. fitxa

Argazkiak :
Ardi deiztea, lehen.
Gasna egiten ari.
Udan, ardiak bortuan alhatzen ari.
Artilearen moztea.
Ardi deiztea egun.

Galde zenbait ikasleei :

- Zer lan egiten du gizon horrek ?
- Non bizi da ? Hor bizi dea beti ? Non daude ardiak neguan? Zergatik ?
- Zergatik moztzen zaie ilea ardiei ? Zertako baliatzen da artilea ?
- Zertako deitzen dituzte ardiak ? Zer aldatu da deizteko moldean ?
- Artzain bati bisita egiozue eta argazkiak balia galderen egiteko.

Gutieneko hiztegia eman ikasleei (lan tresnak, lehengaiak eta mozkinak): esnea, gasna, gazura, kutzua...

Arrantza ikaslearen 10., 10. bis fitxak

Argazkiak :
Sareen egiten, Ahurtin, beihala.
Itsasotik merkatura (edo karrikara).
Sardinak saltzen Donibane-Lohizunen, XX. mendearen hastapenean.

Galderak ikasleei : • Zer egiten ari dira ? Zertako ?

Argazkiak :
Ternuar motako belauntzia Baionako bokalean, 1910ean.
Arrantzako baporontzia, Donibane-Lohizuneko kaian, XX. mendearen hastapenean.

Galde zenbait ikasleei :

- Zer itsasontzi mota dira horiek ?
- Nora joaiten ziren arrantzara ?
- Ozeano Atlantikoaren mapa har ; Euskal Herria eta Ternua koka.
- Mapan itsasontzi bakoitzaren ibilbidea koka.
- Ternuarra eta baporontzia konpara. Zertan dira ezberdinak ?
- Zerk ibilarazten zuen itsasontzi bakoitza ?
- Zerk ibilarazten ditu gaur egungo arrantzontziak ?

Argazkia :
Atalaia Biarritzen.

Galdera ikasleei : • Zertako erabiltzen zen dorre hori ?

Oharra : Dorre horietatik itsasoa begiztatzen zuten. Balea (edo baleak) ikusten z(it)u(z)telarik, dorrean dagoen labean sua piztuz, kearekin seinaleak egiten zituzten mariñelen biltzeko. Gero, traineretan, baleari hurbiltzen zitzairen eta arpoinez hiltzen zuten.

Irudia eta argazkia :
Bale arrantza lehen eta orain.

Galderak ikasleei :

- Zertan dira ezberdin irudia eta argazkia ? Zergatik ez da argazkitan agertzen lehenengo arrantza mota ?
- Zer egiten ari dira ?
- Balea hil eta, zertako baliatzen zuten ?

Iradokizuna : Ohartaraz lehenengo arrantza mota ez dela argazkitan agertzen. Esplika Erdi aroan jadanik balearen arrantza egiten zela Euskal Herrian eta hemendik kanpo. XX. mende arte, ez zen argazkiaren teknika pikoan emana. Komunzki, marrazkiak eta margoak egiten ziren. Ohartaraz, bestalde, gaur egun Norvegiarrek eta Japoniarrek baizik ez dutela bale arrantza egiten. Oraingo argazkian japoniar itsasontzia dugu ikusten, aitzinean Greenpeace-ren zodiac-a dela ageri. Gaiaren barnatzeko, ikus IKASen dokumentazioa.

Azkenik, irudia eta argazkia aztertuz eta konparatuz, eztabaida idek ikasleen artean.

Osasuna / Osagarria *ikaslearen 11. fitxa*

Argazkiak :
Pariseko ospitaleko gela bat, XX. mende hastapenean.
Egungo gela bat Baionako ospitalean.

Galde zenbait ikasleei :

- Konpara itzazu bi argazki horiek.
- Zein ondorio dauka medikuntzaren aitzinamenduak ?

Argazkiak :
Baionako ospitalea 1958an.
Baionako ospitalea 1958an.
Baionako ospitalea 1958an.
Baionako ospitalea 2 000. urtean (maketa).

Galdea ikasleei : • Deskriba itzazu Baionako ospitalearen aldaketen urratsak (ahoz).

Oharra : Espazioari doakion moduloan, Baionako ospitalera itzuliko gara berriz azken argazkietatik abiatuz, ospitalearen garapenaren lantzeko. Gisa berean, bolumena ere landuko dugu, maketaren eta kuboen bidez.

Elikadura / Janariak *ikaslearen 12. fitxa*

Argazkiak :
Urketariak, Saran, 1905ean.
Urketariak Kanboko burguan, 1904an.

Galde zenbait ikasleei :

- Zergatik joaiten ziren iturrira uraren bila ?
- Nola bideratzen da gaur egun ura etxeetara ?
- Aitatxiri eta amatxiri galda iezaiezu noiz heldu zen ura etxera.

Argazkiak :

Xerri hiltzea etxean.

Xerri hiltzea orain, hiltegi industrialetan.

Galde zenbait ikasleei :

- Dokumentuen eta lekukotasunen arabera, asma ezazu xerri hiltzearen garaia.
- Zer janari mota egin daiteke xerriarekin ?
- Ahaide bati galda nola iragaiten den (edo zen) xerri hiltzea.

Jokoak ikaslearen 13. fitxa

Argazkiak :

Kartetan, 1910ean.

Birlen jokoak igande goizean, Behauzoko plazan, beihala.

Pilota partida, XX. mendearen hastapenean.

Saien ihizitik heldu, Azkainen, XX. mendearen hastapenean.

Galde zenbait ikasleei :

- Konpara itzazu argazki horietako jokoak gaur egun egiten diren jokoekin.
- Saien ihizia, zer da ? Jokoa ? Kirola ? Aisialdia ? Lana ? Eztabaida ezazue.

Paisaia (karrika, zubi...) ikaslearen 14. fitxa

Argazkiak :

Kanboko Xerri karrika, 1910ean.

Karrika bera, gaur egun.

Galdea ikasleei : • Konpara itzazu bi argazki horiek.

Argazkiak :

1910a baino lehenagoko zubia, Kanbon.

Berriagoa.

Oraingoa.

Oharra : ikasleen fitxan 2 - 1 - 3 ordenan ageri dira.

Galdea ikasleei : • Hiru zubien argazkiak sailka itzazu zaharrenetik berrieneraino.

Ohar orokorra : karriken edo paisaiaren lantzeko, bakoitzak bere inguruko lantzea da egokiena. Bestalde, lan honetan azaltzen direnez gain, IKASen badago argazki fondo aberatsa (Uztaritze, Kanbo, Donibane-Garazi...) eta mailegatzeko ahal dira.

Ebaluaketa bederazka edo taldean egin daiteke :

- ahoz, argazkien konparaketak landuz ;
- edo proposatu jokoen eta proiektuen bidez.

Argazkiak :

Xerri karrika lehen, Kanbon.

Xerri karrika orain.

Galde zenbait ikasleei :

- Konpara itzazu bi argazki horiek. Zer da berdina ? Zer ezberdina ?
- Nola jakin dezakezu zein den argazki zaharrena ?

Argazkia :

Lehen, erreka bazterreko latsagian jantzien garbitzen ari.




Galde zenbait ikasleei :

- Nolako argazkia jarriko zenuke eskuineko laukian, konparaketaren egiteko ? Bila ezazu zuk pentsatu argazki hori liburu edo aldizkarietan eta doakion tokian itsas (kola).

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK

1 Espazioaren eta denboraren oinarriko kontzeptuen eraikuntza

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegiaren ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentaziotik urrunduak dauden espazio abstratuagoak kondutan hartzen ditu ; bere burua horietan kokatzen ahal du.	

2 Metodologia jakintasanak



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)

Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	
--	---

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK



1 Ahozko hizkuntza erabili

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	

2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).





Hiztegia : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	
Ortografia : testu bat hutsik egin gabe kopia behar du.	

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK

1 Matematika/neurriak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdin orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	
2 Munduari ohartu (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).	
Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da.	

Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	
Plano simple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendeei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria; baserria; eguraldia; zelaia, mendia; etxaldea, lantegia, saltegia...).	
Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan.	
Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.	

HIZKUNTZA EDUKIAK

GRAMATIKA EDUKIAK	ADIBIDEAK
<p>1. Aspektua Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO</p>	<p>Bi urteren buruan, atzerrira joanen gara familia guziarekin.</p>
<p>2. Tempusa *edun eta izan aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia</p>	<p>Duela lau urte, nere ikasgelan margotu genuen orma handi bat.</p>
<p>- (a) N inesiboa</p>	<p>Xan, iaz sortu da, Baionan. Telebista 1998an aldatu genuen. 1994an Indurainek Frantziako itzulia irabazi zuen.</p>
<p>Denborazko formula bereziak</p>	<p>Hiru urte aintzin... Lau urte ondolik... Heldu den urtean, iaz, duela..., hiru urteren buruan...</p>

HIZTEGI EDUKIAK	
Zenbatzen ikasi	1... ..2000 raino
Etxe barneko tresneria	Telebista, hozkailu, izozkailu, arropa, ikuzgailu... (ikus <i>Etxetresna elektrikoak</i> . Eroski).
Familiakoen izenak	Aita, ama, arreba, ahizpa, anaia, osaba, izeba...
Saltegiak	Okindegi, arrandegi, harategi, jatetxe, ostatu, liburu denda...
Jantziak	Abarkak, oskiak, galtzak, xapela, xamarra...
Bestak	Maskarada, ihauteri, Besta berri...
Lanbideak	Laborari, arrantzale, artzain, diruzain, idazkari...
Elikadura	Haragi, arrainki, barazki, esneki...